

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Irugarren urtea. Pamplona. Junio 1968. Garagarrilla (Ekaina). Iruña. 28'gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

Euskaltzaindia



Euskal Kulturaren sei aundiak. Ezkerretik asita: Carmelo Etxegaray, Arturo Kanpion, Julio Urkijo, Domingo Agirre, Serapio Mugaica eta Juan Carlos Gerra.
(Fausto Arocena jaunaren «Nuestra pequeña Historia» liburutik artua).

II - JAYOTZA

Urte asieran zen. Euskal Akademiaren berrogeitamar'garren urtemugako lenbiziko batzarra. Bilbo'ko gure etxe zaharrak koka-ahala ba ginen barnean. Danok zerbait esan nahian; danok asmo onez beteak. Aize berriak pareta zahar aien artean.

Lenbiziko itzaldia gure lendakariarena. Asiera ona. Esan ere, gutxi esan zezaketen berak bezela «**an nintzan Euskaltzaindia sortu zaneko batzarre artan**». Mututu ziren, mututu, gure ezpainak! Ez da gau erdiko auntzaren ezula, duela ainbeste urte edozein alki baztarretan entzunak, mai burukoaren agotik jakitea! Atzo ta gaur uztartuak; bi gizaldi ta lokarri bat.

Gutxi, esan dugu; bai al-da orduko beste norbait? Bi izen aundi, bi gizon ospetsu: Barandiaran Joxe Miguel eta Nemesio Etxaniz jaunak. Gu gazteondako amets bide zabalaa...

Lekuona'ren itzaldia entzutean, begiak itxi eta 1918'ra nolabeit itzultzeko egan beharra sendi nuen zainetan. Ixilka inbidi pixka bat ere bai. Kondaira ziren gure lendakariak esanak. Euskerak izan duen gertakizunik aundienaren kondaira.

Azkue aundia izan zen lenbiziko buru. Lau euskal Diputazioak eraginda jayc zen aurrari izena eman behar eta, azkenean «EUSKALTZAINDI» gelditu zitzaion. Istillu asko sortu duen izena. Zer ajola du izenak? Beste buru-austekorik izan ez ba ginu bezela Euskalerrian...


Naparroko gizon bat ba zen lenbiziko eguneko euskaltzain aien artean: **Arturo Kanpion**. Donostiko Diputazioan urte askoz gure billerak egin ditugun txokoan gizon onen burua ikusi ta, kezka ilun bat sortzen zitzaidan barnean. Noiz arte lur eman Napparroan? **Kanpion**'en zorra ez du ordaindua bere erriak...

Gauza asko eta bikañak entzun genituen gure lendakariaren agotik. Ez amets goxotan lokartzeko. Euskaltzaindiaren mundura etortzea etzan goizeko loretxo baten iruzkitara idekitzea izan. Arantza gogorak topatu zituen bidean. Eta lar aiek gaur arte ez dute beren ozkako kemena galdu.

Alare aurreramendu ederrik egin da. Egindakoa ikusi eta egitekoari esku botatzeko garai egokia. Berrogeitamar urte auek ez ba dira alperrik galdu gure aurrekoen jokabideari esker.

Eta guk zer?

J. M. S.



Euskalerriko Unibersidadeak

Aspaldidanik datorkigu Euskalerriko semeori Unibersidadearen kezka, eta onek zenbat buruauste aintzin eta oraingo urtetan ezdigu eman. Izan ere gure aitonen aitonek bazituzten orduko Unibersidade bat izateko nai eta gogoa.

Naparroko Erreinuaren aldi zoriontsu auetan gure Erregeek, noizean bein izaten bazan ere, agertu zuten beren borondatea Unibersidadea jasotzeko, bañan egia esan, arreta, axola, etzan ainbestekoa, eta auen asmoak etziran bururatu ahal izan.

Pasatu den XIX mendean Euskalerririk, Gipuzkoako Oñateko errian, bazuen bere Unibersidadea bañan karlistek gerla galdu zutenean berekin batean eta beste ain gure eta maitatuak genituen gauzen askoen artean Oñateko Unibersidadea galdu gendun. Ordudanik orain arteraño Bilboko Ingenieru Industrialeen Eskola eta Ekonomia Zientzien Fa-

kultadea kenduta ezta egundaino Euskalerrian Madrilgo Gobernuaren ardurapen dagon Unibersidaderik izan.

Zorionez azken amar urte oketan Unibersidadearen aizeak aldaturik, Euskalerrri alderunz egiten asiak dira.

Lenbizikoz Aita Jesuitek Bilbon Deustoko Unibersidadea eraiki zuten. Bigarrenez Eliza Katolikoaren «Opus Dei» deitzen den Institutoak Naparroko Diputazioaren laguntza aundiarekin Iruñean «Naparroko Unibersidadea» delakoa ezarri zun. Unibersidade onek badu Filial izeneko bat Donostian. Gero Aita Jesuitek ere Donostian «ESTE» deritzan Ikastetxe Nagusi bat sortuerazi zuten («ESTE»-k «Gipuzkoako Unibersidadeko Ikasgo Nagusiak» nai du esan; erderaz «Estudios Universitarios de Guipúzcoa»).

Azkenean orain illabete bat ezda-




la Estaduak Bilbon bere ardura eta agindupean Unibersidadea jartzea erabaki du. Unibersidade onek ere Donostian filial bat izanen du.

Beraz Euskalerririk baditu bere Unibersidadeak eta denok, pozez gañezka egon behar dugu ainbeste ikasteko bideak gure etxetan ikusirik. Emendik aurrean gure semeek ezdute beren ikasgoak egiteko Euskalerritik kanpo atera izango beharrik.

Euskalerririk orain Estaduaren Unibersidadea badu, eta ontaz gañera beste iru Estaduaren ardurapean ezdaudenak: Naparra eta Deustoko Unibersidadeak eta Donostiko «ESTE» deitzen dena.

Lehen ain atzeratuak gifiela eta orain aurreratuak...

Zorionak denoiri.



150 niños estudian y rezan en vasco en Pamplona

Este es el tercer año de funcionamiento de la Ikastola pamplonesa.

Ikastola es, prácticamente, una escuela normal y corriente. Pero con una característica a la que normalmente no estamos acostumbrados: la Ikastola es vasca; su enseñanza, su catequesis, su música, su diversión es en lengua vasca.

La Ikastola está situada en la Avenida de Bayona; al frente de ella está don Jorge Cortés Izal con tres maestros. En la actualidad cuenta con ciento cincuenta niños, cuyas edades oscilan entre los cuatro y los ocho años.

La enseñanza primaria y toda la formación humana y religiosa se les da en la "lingua navarrorum", totalmente desconocida para la mayoría de ellos durante las primeras semanas.

Este centenar y medio de chavales tiene su primer contacto escolar con el euskera por medio de las oraciones y de algunas canciones populares vascas.

Las familias están muy contentas de la formación religiosa que reciben, y el esfuerzo que, tanto las maestras como otras personas que les ayudan, realizan por adaptar la enseñanza cristiana a la mentalidad infantil vasca.

Tienen catequesis cuatro días semanales; además, todos los días las maestras les hacen un breve repaso del Catecismo. Un sacerdote dirige la formación religiosa de los niños, y los prepara para recibir su Pri-

mera Comunión. Esta primavera serán quince los pequeños que, formados en la lengua euskaldún, recibirán por primera vez el "Kristoren Gorputza".

Hay que estudiar esta experiencia pedagógica que se debía imitar, cuando menos, en todos los pueblos de habla vasca.

Hoy día se están editando obras culturales y religiosas muy importantes en euskera; pero pocos, muy pocos, estarán capacitados para entenderlas y estudiarlas sin una fuerte base, que no puede adquirirse sino en los bancos de la escuela, y a partir de los primeros años.

La Ikastola de Pamplona está, por tanto, realizando una gran labor humano-cultural y religiosa. Los ciento cincuenta niños, que acuden día a día a ella, están recibiendo una base sólida para el futuro.

Ya no es sólo el aprendizaje memorístico del catecismo con unas breves explicaciones aclaratorias, sino que cuentan con personas preparadas para la Catequesis, con personas que sacrifican, desinteresadamente, un tiempo precioso por formar a estos niños pamploneses en una fe que no ha de ser rutinaria sino viva. Y en este aspecto catequístico está la realidad futura de una religión y de un cristianismo de compromiso auténtico.

E. ECHANDI

(Iruñeko «La Verdad» Astekaritik artua).

ESKUALERRIKO LEIOA

UMIEN EUSKAL BESTA EIBARREN

Benetan ikusgarria izan da Eibarreko «Arrate» ko Elkartasunak antolatatu zuen Euskal Umien Besta au. Lau egun iraun zituen, Salbatore edo Astensio egunetik iganderaño. Lau egun oketan denetaz izan zan: Euskal Meza, Dantzari Txikien Sariketak, Euskeraz dakitenei Premioen Banaketak, eta azken egunean, 26'ean alegiña, ikusgarriena: Euskalerriko lurralde guzietatik etorritako dantzari-talden desfile aundia eta Karrozen Leiaketa.

Bi milla dantzari txiki, txistulari eta laguntzalle bildu ziren Eibarren egun ontan, eta Karrozak denak ezin oheago eta pollitagoak atera ziran euskal oitura edo lengo lanketak erakusirik.

Eibartarrak nagusiak direla ainsteste gauzetan bagenekin aspaldin, eta «Umien Euskal Besta» onek eibartarren euskaltzaletasun eta indarra erakusi dizkigu.

Aurrera eibartarrak, eta zorionak «Arrate» Elkartasuneari.

EUSKAL OBITEGIA APOZAGAN

Gipuzkoako «Leniz»ko Ballaren «Apozaga» auzoan Euskal Illerri bat, Lur Saindu bat da. Bertako Erretore den Anastasio Otaduy Yaunak asmatu eta Naparroko seme den Patxi Goikoetxea yaunak egindakoa.

Ikustekoa da. Begira zazue itz gutxitan nola dan: Borobilla, bideak «gurutzean» egiñak, diametroz 22 metro eta arrizko Aldare batean San Migel arriandaturako Iduria. Illobi bakoitzaren buruan «Illarri» bat dago. Illarrietan baserrien izenak daude euskal letraz idatziak. Illarri batzuek beren armariak dituzte. Sarlekuan bi arrizko pilare romani-koak ikusten dira eta ate gañean «GERO ARTE» leitzen da. Gure ustez merezi du Apozagako Obitegia ikustek.

LEIREKO MONASTERIOAREN AITA NAGUSI BERRIA

Leireko Monasterioa zaitzen duten Praileek Aita Nagusi edo Priore berria izendatu dute: Aita Luis Maria Lojendio Agurgarria.

Aunitz alegatzen gaitu autapen onek Aita Lojendio Euskalerriko semea baidugu eta gure Leireko Monasterio aipatua uste dugu merezi eta bear duen tokian goratuko dela. Gure goresmen eta agurrak Aita Lojendio maiteari.

MATEO MUGIKA APEZPIKU YAUNAREN URRE-EZTIAK

Aurten Mateo Mugika Apezpiku Yaun Agurgarriak Apezpikutzari eldu zanetik berrogeitamar urte betetzen ditu. Iruñeko eta Bitoriako Apezpikua izan zan: euskaldun guziok maitatua.

Zarauzko erri pollitean bizi da zar eta gaixo Montemar izenezko etxean. Laurogeitemezortzi urte pasatziak ditu, eta itsu gelditu bada ere bere adimendua argi eta bizkorra dauka.

Yoan den maiatzeko emeretzigarrenan izan zen urrezko eztaiak betetzen zituen eguna.

Gure biotzen erdi-erditik ateratako agur eta zorionik amultsuen eta maitekorrenak Mateo Mugika Apezpiku Yaun maite maiteari bereganatzen dizkiogu.

GURE IRAKURLEI

Datorren illean Iruñeko Festak diralokoz bertako lantegiek beren opor egunak artzen dituzte. Gure Errebista au argitaratzen duen Inprentak ogei eguneko atsedenaldua artuko du.

Au kontuan arturik, «PRINCIPE DE VIANA»-ren zuzendaritza eramaten dutenek erabaki dute urrengo numerua ezdela illabetekoa izango, bi illabetekoa baizik, au da Uztailaren Agorrillarenekin batean aterako dela.

Beraz eldu den «PRINCIPE DE VIANA» ezduzte zuen etxetan oi dan bezelako garaian artuko, baizikan amabost egun geroago, Agorrilla ren 4 egunetik 11 egunerako asteen.

Izan ongi eta agur bat denei!



ELIZAREN ITZA

Batikano'ko II eliz batzar nagusia


ELIZA GAURKO MUNDUAN

Gizonak iritxi dezaken goien-goieneko malla, Jainkoanganaño itzortzea da. Sortzetik ots egiten dakio gizonari Jainkoarekin biltzea. Dan dena Jainkoaren maitasunetik dator, izate eta iraupena. Maitasun ori aitortu, iñork bortxatu gabe, eta bere Egilearengan uste edo konfianza osoa jartzen duenean, gizona benetan gizon da. Gaurko egunean ordea asko dira, Jainkoarekiko lokarri ori alde batera uzten dutenak, baita Bera txaro ukatzen dutenak. Jainko-eza ori, ateismoa ots, gure aldiko gertakizun astunenetakoa duzu. Alde askotakoa da. Jainkoa garbi ukatzen dubie batzuk. Beste batzuk Jainkoaz ez ditekela deus esan diote. Badira Jainkoaren aztarmerik ez ditekela opatu, ta billa astea alperrik dela esaten dutenak. Zenbaitek ikuste, ukitze edo neurritz bakarrik korapillo guztiak askatu nai lituzkete edo ta Absoluto guztia ukatu. Badira gizona neurri-gabe jasotzearekin, Jainkoarentzat lekurik uzten ez dubienak. Badira berak asmatutako Jainko bat ukatzen dutenak, Ebangelioko Jainkoarekin zer ikusirik ez daukana. Beste batzuk, religio kezkarik ez balute bezela, Jainkoa bote danik ere ez dute galdetzen.

Aldiz, mundu ontako oñaze, gaitz eta eriotza, Jainko onarekin ezin uzartu ditekela ta, Bera ukatzeraino eltzen dira.. Gaurko aurrerapenak ere, ez berez, lurrari geiegi itsatsiak daudelako baizik, Jainkoarengana jasotzea zailtzen dubie.

Religio arazoak baztatu eta Jainkoa beren biotzetatik jaurti bota nai dutenak, konzientziaren oiuari sorrarena dagoite eta errudun dira. Sinisdun frankok badute beren erru-partez lanbide ontan. Religio eziera exkaxa, sinisgaien azaltze murrizta, oitura txepelak bakar eta gizartearen, Jainkoaren aurpegi egizkoa estali egiten dute, agertu baño geiago.

Gandhi Indiko buruzagi jatorra, Jainko-zale purrkatua, kristauen bizikera geldoak atzeratu zuen kristau egitetik. Ebangelioa irakurri zuenean lenbiziko aldiz biotza ukitu zion, mendiko itzaldira esaten dakion orrek batez ere, Aita gurea otoiitik bikañena iruditzen zakion eta Jainkoari mintzatzeko era bat artu zuen, baño ona zer dion «Ebangelioa irakurtzean kristau naizela esaten diot nere buruari. Egizatzen dutenean ordea, kristauak gudak sortzen dituztela, Kolonitako erriek oinperatzen, alkola edaten, opioa erretzen, sumatzen dut ez direla bizi kristauak, Xristok nai dun bezela». Gandhiren ateraldi garratz au ausmarten ahal dugu.



B A T A S U N A

Azken aldi ontan euskeraren batasuna agotan da. Agotan eta buru-auste gogorretan. Aspaldi beharra! Erri atzeratuen kontua da, txoriari kaiola bezala, auzoari esia egin eta aldekoen berri ez jakitea.

Kalte aundia egin digu bakardadeak. Askotan entzun duguna: «euskera zertako! Euskaldunen artean ibiltzeko ere ez du balio...» Negargarri baño, batzutan ezin ukatua.

Kanpoan ditugun senideak dute samin senditzen. Ona emen Kaliforniatik neronek artutako bertsu zati batzuk:

Eskual herriak ttipi eta urbil elgarri,
Halare batek bertzia ezin konprendi;
Gure izaite guzia batera baledi
Formatzen ahal laike Erresuma aundi.

Zer desiratzen dautan barnetik bihotzak?
Denek berdin egitia eskualdun solasak,
Bai eta iskiriatu gisa berian itzak.
Noiz atzemanen gaitu holako solasak!!

Aments hori ardietsiz gauza baliosa
Guziek konprenditza familiako gisa;
Gidariak erakuts balezagute ontsa
Ez laiteke ikastia batere nekosa...

ZER EGIN?

Lenbizikorik elgarren arteko aztapuak kendu. Ezin da mai-buru eta maipeko bezala elkar-izketa sortu. Euskera guziak ba dute beren alderdi ona eta mailla berean behar dute sartu. Orduan etorriko da elkar-izketa. Bestela, betiko istilluak. Mezaren «Canon» esaten duguna, era ortan zuzendua izaten da: eta denetan berdina.


Oiñarri batzuk behar lirake; eta aiek betetzeko itzartu. Oiñarritako lenbiziko legea jatortasuna. Ez izkuntza baten edo bestearen jatortasuna; itz bakoitz edo joskerena.

Bigarren, edadura; nundik nora zabaldua den. Esan nahi da, jatortasun berdineko pundutan, ezagunena aurrean dela jokatu. Gero besteak.

Azkenekotz, gerta laike geienik zabaldua denak beste leku batzutan ez ori adieraztea. Esate baterako eztaí = boda. Au da naski zabalduena. Alare kontuan eduki behar, eztaí = bizitegi (B. N.). Eta nolabeit ezkontzako festari ezteiak esaten dieten Baxe-Nabarren, elizake batere gostako ofizialki ezteí onartzea, ezkontza kontuko.

Itz gutxitan esateko: elgarrenganako begiramendurik audienarekin artu beharra daukagu batasunaren eginkizun au. Ez ginuke ez garaile eta garaiturik gure artean behar.

SAGI



Resurecion M.^a Azkue zana, Euskal-tziandiaren lenengo Burua.



Julian Lekuona Apez Yauna gaurko Euskaltziandiaren Burua.

San Juanen kantaita

Urteko egunik ederrena izaten omen zen Euskalerrian San Juan eguna. Iruzkia saltoka ateratzen zela diote. Nik ez dut ikusi. Oitura asko dira egun ortan. Urdiain'en kantu polit au kantatzen zuten neska mutillak elkarri eskutik artu-ta, bezperan:

1. Egun bai egun onek San Juan diruri
Ez da San Juan baya ala alunbra bedi.
Guazen San Juanera gaur arratsian
Etorriko gerala biar goizian.
2. Guazen San Juanera berduratara
Berduratara eta an egotera.
Juan nintzan Fraitziara etorri Mayatzian
Zalditxo urdiñian astuaren gainian.
3. San Juango iturriaren ondok
Zazpi iturri urre kainuetatik,
Zortzigarrena metal zurietatik
Zortzigarrena metal zurietatik.
4. San Juango iturrian dago ura berde

Amurraitxo freskuak antxen dirade,
Lemizko eskua eta gero musua
San Juango iturriaren freskua!

5. Jesukristoren lengusuba da
Aita San Juan Bautista
Aingeruak dantzan dabilta,
Dabilta, baya dabilta
San Juanen pozian dabilta!
6. Andra mutur maketsa
Aingeruak dantzan dabilta,
Dabilta baya dabilta
San Juanen pozian dabilta.
7. San Juan garagarrian
Denbora galantian!
Maizik eta garik
Ez dagonian etxian.

(Luzia Zufiaurre'ri artua. Urdiain (1966)
J. M. S.



BASERRIEN ALDE

Emen argitaratzen ditugun bi bertsu ok Gipuzkoako Diputazioaren batzar batean irakurriak izan ziren orain bi illabete; Errenteria'ko seme den Adolfo Leibar eta Axpe Diputadua izan zen leitu zituena bere «Baserritarren aldeko itzaldia» indar geiago emategatik.

Baserritikan sortu giñan da ezin bazterreru utzi.
Gaurko moduan ezin liteke denbora lizean bizi.
Bizi tankera berriak ditu munduak sortu erazi,
gure guraso dan baserriak ez al ditu, ba, merezi?

Bizi moldetan ezin liteke beti begira atzera.
Zu baserria, gure Errian iñoiz arrotza al zera?
Baserri eta kalea goaz kamiyoiz ALKAR LOTZERA bizi ditezen alkar lagunduz senide onen antzera.

Bertsu auek argitaratzeak bai merezi duela denok ezagu ditzagun. Baserrien alde agertzea, gure Nekazalgotik bizi diren errien alde iza-tea, Euskalerriko muña eta biotzaren alde egotea bezelakoxe da. Gure ustez denok bersu auek irakurri bear ditugu. Eta... Adolfo Leibar Axpe diputadu jaunari gure txaloak.

ZALDIÑO

(Erronkari'ko Kantu berri. Ele: Estornés Lasa, José. Soñu: Garmendia Estornés, Idoia).

¿Non zaude zaldiño?
Ez zaude bortietan,
zore ama dago
nexarrez mendietan.

Zaldiño, zaldiño,
Izaba'ko bortian
libre bizitako
ebiltako mendian.

Balenzia erreinuan nago
karro baterik tiratan,
salto nei gaztezarroan,
ebiltan naz sufritan.

Amaren esne bero
pikuetan elur,
aitaren irrintziri
aitzetan odoi.

Libertade galtuz geroz,
txiki balio du bizi,
izanen zen obiago
goiko mendietan il.

Oxanian basakumiak,
airian bela beltza,
odei-artian arrana
libertadian.

ARGIBIDEAK

(zaldiño, zaldi txiki; bortian, bortuan; irrintziri, irrintzi; oxanian, oianian, basoan; odoi, turmoi; zerbutxari, zerbitzari; salto nei, saldu naute; izanen zen, izango zan; txiki, gutxi).

Bidian asto umilde,
mando ta zamari,
bei, ardi ta txakur
zerbutxari.

J. ESTORNES LASA

“ZALDIÑO”

Zal-di-ño, zal-di-ño I - za - ba' ko bor-ti -
-an; li - bre bi - zi - ta - ko E - bil -
-ta - ko men-di - an. A - ma - ren es-ne be -
-ro Pi - ku - e - tan e - lur; ai -
-ta-ren i - rrin - tzi-ri ai - tze - tan o -
-doi. O - xa - nian ba - sa - ku - miak, ai - rian - be - la bel - tza;
O - dei ar - tian a - rra - nu - a li - ber - ta - di - an.

Emen ditugu aurtengo San Pedro jaiak, ta jo errepikan din... dan... kanpayak

San Pedro jaiak otska ditugu:
«¡Ea, prestatu zaitezte!»
Egun alaia t'audik dirala
jakiñian egongo zeate.
Arrazoyaren indar aundiya
poztutzeko badezute.
Berditasunian igarotzeko
modu faltik ezdezute.

lengo urtiak betiko artu zun
pozgarri, atsegiñ agurra.
Antxo t'atunak kendu zizuten
negu bortitzen bildurra.
Etzan faltatu zuen sukaldian
su gai ikatz ta egurra.
Ez eta ere eltze berdiña
edo ta puska legorra.

Urte-Berriak argitu zigun,
ta... ¿zer dakarki berekiñ?
Ilbeltza, Otsaila lenengo illak
neguaren indarrakiñ.
Martxua ezker asi litezke
egualdi onak iguzkiakiñ,
txori, kuku ta San Jose lore
trumoi kazkarabarrakiñ.

San Jose jun zan ta Martxua orobat.
Uda-Berriya, ¿nun zaude?
Zu noiz agertu, zu noiz etorri
larri ta irrikitzen gaude.
Zuri begira, zu noiz ikusi
jaurten erraza etzerade!
Gure kuthuna, argi egiguzu.
Ezer ez gera zu gabe.

Begiratu bat eman nai diot
berri bere sasoiari.
Ez da agertu bere legietan;
etorri da beranduegi.
Sartu zun otza ezurretaño;
bidia eman dio elurrari.
Jantzi tzuriya ezarri diyo
inguruko mendiyari.

Gerezi lore, aran, musilka
arrokakuta azalian,
jarri zituzten eder ederrak
denen begiyen aurrian.
Egonak ziran azi eziniñ
aize otzaren mendian.
Egiñ du zuenak; laxter zerate
bizirik gabe lurrian.

Apirilla ere jo ta aurrera;
beriala giñan Pazkotan.
Bazterrak triste negar itxuran,
danok bildur ta kezketan.
¿Ez ote zaigu sartuko aurten
biar dan antxua saretan?
¡Zenbat denbora, egogiyenak
galdu diran aurretikan!

Ala ere zerbait ta ez aifi gaizki
kostera eman du antxuak.
Ez ditu izana itsas sakonak
bular idor ta antxuak.
San Pedro jaia egun abetan
alaitu bitez auzuak.
Alaitu bitez aiton-amonak;
kanta'itatzela bertsuak.

Aurten bezela izan ezkeru
Uda-Berriya urtietan,
estali leizke gure premiyak
egon gabe bildurretan.
Pasa litezke erriko jaiak
txukun t'alaitasunetan.
Eman Jaunari oraiñ ta beti
esker onak biyotzetan.

Jaiak amaitu ta beriala
atunetara zuazte.
Ospatu'ituzue ederki jaiak,
¿Zer geigo biar dezute?
iru illabete neketsuari

aurez begira zaudete,
baña ez bildurra ta ez ikaraz.
¡Ortako zuek etzaudete!

Antxo-atunetik irabazita,
gorde zintzo puskatxo bat
negu luzian gero epelian
atsedentzeko biar ainbat.
¿Zeiñek zer daki geroko berri?
Mundua dabil arat ta onat.
Gaur asko biar da; neurrik gabe;
muntoika. ¡Zenbat ta zenbat!

Kontuak kontu, arrantzaliak
osaturik du altxorra.
Erosiko du erri jaitako
pintharratu alkandora.
Ez da zuluana sartu ta egongo
ez dalako, ez, satorra.
Euskal erriko arrantzalia
beti da gizon jatorra.

1968 Garagarilla.

Joaquín ALDABE

Benito Lertxundi'ren diskoak



«Bihar itxaropen» eta «Gazte sentimental».

Aipatzen dugu emen Lertxundi'ri buruz bere lenengo diskoan esaten danetik zerbait: «Etxeak bezela, erroak finkatuak dituzten gauzak bezela, jaioterrian bizi da. Musika: Gure herriaren oitura zaharra, Benito Lertxundi'ren betikoa. Kantatu, txori erresiñolaren soñu gozoa; itxasoaren indarra. Bein, oitura etzen bezela, eskuen artean gitarra bat arturik berak ikasitako guziak, eta begi aurren zituen gizona eta mundua ikusirik, asi zen kantatzen eta hala ari da...».

Benito Lertxundi Gipuzkoako Orioko errian jaiotzen 1942 gn. urtean eta an bertan bizi da. Lertxundi, goitixean esan dugun bezela, «Ez dok amairu» talde ezagunarena da. Bi disko grabatu ditu gaurkoz eta beste irugarren gertatzen ari da eta laster agertuko.

Ona emen Lertxundi'ren bi diskoek dauzkaten kantuen izenak: Lenengoak: «Egia», «Zenbat gera», «Egun sentia», eta «Loretzoa». Bigarrenak: «Gure bide galduak»,

APEZA, ¿ZETAKO?

—Jainkoak diola eun on, jaune.
—Baita zuri ere, emakume.
—Barka beza, negarrai ematen ba diot... ¡iiijp!

—¿Gertaketa illunen batez?
—Pozez, jaune; pozez...
—Zure pozak, pozten nau. Baño, jakin diteke zerengatik den poz ori?

—Ortaa netorren; nee poza aundiagoa ta gogozkoa izan dedin.
—Mintza, emakume, mintza; jakin naian nauzu, eta.

—Oaiñ amiru urte, il'tzitzaien nee senarra ta, amabost eun ondoren, nee seme bakarra. Nee amets zoragarriena zen, amika urteko semetxo ue, apezetaako, Jainkoa ematea, baño... ¡iiijp!

—Jainkoak emango dizu zure bondate onaren saria.

—Pentsa beza, jaune, zenbat negar egingo nun ordun. ¡Alargun eta bakarrik mundu ontan...! ¡iiijp! Akaonee amets guzik!!!

—Len esan didazu, gaur pozez negarri ematen diozula...

—Egii da, jaune, ta bela esango diot zeengatik. Nee seme bakarra il bai'tzitzaien, apezetaako asmoan zeola, ¿ze ein niteken? Jainkoak eman zeen goiargi pozgarri bat. Ba'zen nee errin, beste mutiko bat, nee semin adinekoa, txintxoa baño txintxoagoa, gañea, nee besoetako.

Arrek ee ba'zun apezetaako asmoa, baño nekazarin semea baitzen, ta famili aundikoa, ezin zun bee asmoa bete. Ordun esan nion bee athel, nik ordainduko niola, mutikoak ikastaroako bear zuena. Ta, ala ein nun, ta ala iithen ai naiz. Amabi urte paastu dee ordutik ta, San Pedro eunin, Jainkoa lagun, Meza Berrin emango da gue erriko elizen. Gañea, ni izango naiz Meza Berrin amautxikaako'ree. ¡Mundun deen emakume guzin zoriotsuena naizela uste'ot, Jainkoai eman bai'tiot apez eta misiolari bat: Pasionisten Ordenekoa da'tal!

—¡Egiz, Xabier'ko Franzisko Santuaren fede sendoa dago oraindikan Naparroan! ¡Egin dezun baño gauze obeagorik, ezin ziñun egin!

—Len esan diot, jaune, nai nuke-la nee poza, gogozko poza izan dedin. Ortaako, nai nuke jakin nolakoa den apezan goratasuna. Nik zerbait sumatze'ot, baño beorrek obekio jakinien do...

—Pozik esango dizut zerbait, nolakoa den, fedea gugunentzat, apezaren garritasuna (sublimidad, esango giñuke erderaz). Ta, asiko naiz gai ontaz mintzaten, gazarroan, sukaldin giñela, mille aldiz esaten giñun berso polit bat oroituz. Ara, emen:

«¡Kukurrukul!
¿Zer diuzu?
Buruan miñ.
¿Nork egin?
¿Zazarkuak?
Zazarkua, ¿non?
Goiko bordan.
Goiko bordan, ¿ze ari?
Txotx-enborra biltzen.
Txotx-enborra, ¿zetako?
Suu iitheko.
Suu, ¿zetako?
Opille erretzeko.
Opille, ¿zetako?»

Apezai emateko.
Apeza, ¿zetako?
Meza emateko.
Meza, ¿zetako?
¡Gu ta beste mundu guzii salbatzeko!»

—Ekuste'ot, beorrek nik baño memori obegoa dula. Gue etxin ee esaten giñuzen denboaz berso oik, baño aztuik nauzkin.

—Naiz bersoak aztu, nolabait sumatzen ziñun apez eta merazen garritasuna. Zuk baimena ematen badidazu, datorren «IKASI, MIKASI»'n jarriko det nik gure elkar-izketa eta berso polit au, gure mutiko ta neskatok, erdi jostaketan bezala, ikas dezaten nolakoa den apez eta Meza Santuaren aunditasuna.

—Jarri beza, jaune, nai dun amiste. Baño, berso orrek dion baño geixeo jakin nai nuke apez eta Meza-taz.

—Apeza da Jesukristoren ordezkari, ta Meza, Jesukristok eskiñi zuen Sakrifizioaren berritzea. Obekiago esateko, Jesukristo bakarrik da Jaupari edo Sazerdotea. Begira zer dion San Paulo Apostoluak Erromatarri: «JESUKRISTO ATZO, GAUR ETA BETI» (13, 8), ta, Korintokoai: «ZUEK, BADA, KRISTO'REN GORPUTZ ZERATE, TA ZUETAKO BAKOITZA AREN ATAL BAT» (12, 26).

¡Gogoan edukiko bagiñuke, elizera edo lanera goazeñin, Jesukristoren anak general-ta, beartsuak lagun- tzen diogunin, Bere eskuk generala!

Au egi izan ezker, apez Jesukristoren agoa da, apezaz serbitzen baita mirari aundienak egiteko. Iru itzetan, esan genezakegu apezaren garritasuna:

a.—Jesukristok, apezaz balio dela, berritzen du egunero Aldareko eta Kalbarioko Jauna edo Sakrifizioa:

«AU, ZUENTZAT EMATEN DAN NERE GORPUTZA DA; EGIN ZAZUTE AU NERE OROIZ». Era be-rean, apalondoa ere, ontzia artuta esan zuen: «ONTZI AU ITUN BERRIA DA NERE ODOLETAN. OGI ONTATIK JATEN ETA ONTZI ONTATIK EDATEN DEZUTEN BAKOITZEAN, JAUNAREN ERIOTZA GOGORATZEN DEZUTE (Korintokoai, XI, 25-26).

e.—Jesukristok, batez ere apezaz balio dela, barkatzen dizkigu gure tzen du mundu guzian:

«ZOAZTE MUNDU ZABALEAN, ETA OTSEGI EZUTE BERRI ONA JENDE GUZIEL». (Mark. XVI, 15).

i.—Jesukristok, apezaz bakarrik balio dela, barkatzen dizkigu gure pekatuak:

«PEKATUAK BARKATZEN DIZKIEZUTENAI, BARKATUKO ZAZKIE». (Juan, 20-23).

Ez aingeruak, ezta Ama Birjiñak ere egin ez dezakena, egiten du apezak Konfesioko Sakramentuan.

¡Ain aundia da sazerdotearen garritasuna!

Len esan dizuten bezala, egin dezun baño gauze obeagorik, ezin ziñun egin. ¡Zorionak zuri ta, zuk bezala, mutikoai, apezetarako, lagun-tzen dioten guztiei!

A. ASTIZ ARREGI

ERRAZU'TIK

Bertze urtetan bezala, aurten ere eskolako nexka-mutikoek beren «orakunde» besta izan zuten. Goi-zetik ia erne ta apain yantzirik, etxex etxe zer bildu ibili ziren. Eguerdian erriko ostatuan izen zuten beren bazkaria, eta ez nolanaikoa: naiko bildotx ta postre onenak-takoa yanez.

Atsaldean pillota partidak beren artean, ta beren era edo klaseko yosteta politekin naiko ta gustora yostatu ziren. Gure erriko umeak ain kontent ikusteak, poz ematen zigun. Zorionak maixueri!

Lenago ortzegunerakin egiten zen besta au; azkeneko urte oketan as-teartearekin egin bear izan dute. ¿Zer dala ta? Penagarrizko alderdi bat dela bide edo medio. GUREA DEN GURE BESTARI DAGOKION, TA EUSKALDUNARI AIN BERE TA GOXO ZAION TXISTU SOÑUA FALTA NABAITZEN DUGUIAKOZ. IA, IA AKITU ZAIGU BAZTANEN!!

Gure eskual oituren koblarri izan zen Arturo Kanpion yauna» bere liburu batean Erraondoko azken atabaldariak ezkribituta, Baztanen gertatu zaigu. Erraondoko azken atabaldari arrek ez dakit nola zuen izena, Baztangoak MAURIZIO ELIZALDE du berea. Laister Mauriziook ler egiten duenean, ler egingo du ere Baztango plazetan txistu soñuak. Amalau erri ditu Baztanek amalau errietan txistulari bakarra Maurizio dabil batean ta bertzean. ¿Ez al du unek erremediarik? Berriki zen aferra untaz, solastatu nintzela Mauriziokin; keixo zen, ezagun zuen min ematen ziola:

«Au badoa, eta ni ere bai, eta seguro aski nerekin eramango dut Baztango plazetatik eta alderdiatik txistuaren azken soñua».

Onela mintzo zitzaiten gizajoa!

Zer egin ote zaiten asmatuz giñabiltzela, ona zer zion berak, eta nik ere ala pentsatzen dut zertaz DIPUTAZIOAK ETA BAZTANGO AYUNTAMENDUAK ELKARTURIK ELIZONDON TXISTU IKASTOIA EDO OIAKO ZERBAIT EZARRI?

«Monumentu» edo «Histori» aundi-koak direla ta arri paret ta kalera-ko lengo gauz zarrak begiramentu ta gordegarri direla erranez gabiltz, eta baita oien iraupenerako dirua erriz gastatuz ere. ¿Ez al du Euskal Erriako txistuak «Historik»? ¿Ez al du gure «Folklore» paregabearen ofñari eta bizia izan den soñu begir-ramendu bearrik?

Gaur «urbanismo» deitzen dugun apain nai on sortu-ta, zokoak eta plazak txukun eta ikusgarri nai ditugu, len zarretako berrituz, ezarri nai ditugu. ¿Ez al zen denboretan gure plaza oien edergallu txistu soñu ori? Etxe ta plaza oiek edertzen oso ongi zaigu; zorionak!... baño lengo gauz oien iraupen gorde ta berritu nai gose ori baldin badugu ta senti badugu, lengo errana itzuli gogoa sortu bazaigu, orra or ler egin ta il zorian dagon txistu soñu ori. Plaza, paret, arri zar eta etxe oiek lengo gauz izenen gorputz utsa bezala direla, erran dezakegule uste dugu; txistu ta txistu soñu ori anima dela iduritzen zaigu. Plaza berri- txe oiek eder dire bai begientzat, otz ta uts ordea txistu soñurik gabe Euskal Errirentzat. ¿Eskurik botako ez al diogu?

AUAZ

«PRINCIPE DE VIANA» Errebistaren oharra:

Baztango «Elkartasuna» deitzen denaren idazlan au gurre orrietara ekarri dugu interesgarri dalakoz denentzat eta berri au gure irakurle- kakin dezaten.




Arizkun'go Maurizio Elizalde Baztan' go azken txistularia izanen ote da? Baztango Aiuntamenduak eta Dipu- tazioak dute itza.

Baztanen Txistua il zorian dela egia ote da? Bai, naparrak, txistu- lari bat bakarra da Baztanen: Mau- rizio Elizalde, gizon zintzo bezin txistulari ona; euskaldun jator eta euskaltzale sutsua; Arizkungo errian bizi dena. Onen eta baita ere «AU- ZA» izenorde onekin izbribitzen de- naren ustez Baztanen txistu soñua emendik urte gutxitara ez uituko. Egi zorrotz au gerta ededin Mau- rizioak eta «AUZA»'k esaten dute Baztan eta Diputazioaren eskuetan dagola Baztanen txistuaren etorki- zuna. Guk ere ori ber-bera esaten dugu eta eskatzen diegu Diptazioa- ri eta Baztango Ayuntamenduari Txistuaren onerako «Zerbait» egin dezaten. Elizondon Txistu-Akade- mia jartzea eta Maurizio Elizalde: maixua.

Eliza berri bat?

Bein baño geiagotan aditua dugu: «oraliko apezak fedea kendu bear digute». Len gaueko amabitatik asi-



ta barurik egoten ginen Jauna ar- tzeza joateko; eta askotan aurpe- gia garbitzeko bildurrak agorik ez mustitzeko. Orain, ordu bateko ba- ruia naiko; urak barurik austen ez. Zer da Jainkoa ere moda berritan sartu?

Lenago dantzariari «zinta» kentzen zitzaion; eta etziren oraino dantza lotsagabeak egiten. Eta jantziak!!! Obe da ez aipatzea. Erdi bilisgorrian dabilten emakumeak, gero Gure Jauna artzera joaten dira. Ez du as- ko behar oraino kristau moduekin konformatzen bada Jainkoak! esaten zuen artzai zarrak.

Azkenean apezak ere firi-fara pan talon eta ator utsean ibiltzen asi zaizkigu! Zer da au eliza berri bat?

Ez. Elizak ba ditu aldatu ezin di- ren gauzak. Fedezko egia ta Sa- kramenduak ezin dira aldatu. Egia bat da, eta egi au aurrera aterako duen eliza ere beti bat izango da.

Baño, elizak ez ditu bere onda- sunak teila azpian gordetzeko ar- tuak: bere argia, Jainkozkoa izanik, gizonen bideak argitzeko du.

Sakramenduak diren iturri uga- riak, gizonaren barne egarria ase- tzeko. Eta gizona aldakorra da. Atzo maite zituen dantzak gaur okatzen ditu, edo barregarri zaizkio...

Elizaren jokabidea, ama batena bezala da: aurra txikia delarik bula- rra ematen dio eta aunditzean zu- kuba eta okela. Gaixotzen bada po- rru-salda eta ollo zopa. Garai ba- koitzean komeni dakiona. Dena da indartzea eta bizibide onera ekar- tzea.

Ori ala balin bada zer ajola du meza goizean edo atsaldean entzu- teak? Munduko lemeziko meza, Os- tegun Santuko Afaria, gauaz izan zen; gero, Elizaren oituraz ekarria da goizera. Or balio duena Meza da, ez eta mezaren ordua. Berdin esan laike belaunikatu gabe artez ontaz; Israeldarren oitura, tente Pazko afaria egitea zen. Eta tente jan zuten ikasleak lenbiziko Mezan, Lege Berriko Axuria.

Onekin esan nahi duguna auxe da: ez dugu intxaur kaskal eta gaz- tain mokotsean gelditu behar. Ma- mira eldu eta gustorena jateko mo- duari begiratu baizik. Eta orain arte Elizak ibili dituen erak bere denbo- ran onak izan zaizken eta gaurko munduan motz gelditu. Meza lati- nez esaten asi ziranean, munduan geiena ibiltzen zen izkuntza zen ura. Eta gaur nork mintzo du?

Itz batez esateko, Jainkoarenga- na jotzea da gure egitekoa.

Jainkoa ez dago askok uste du- ten bezain irruti. Ez da lege kontua: biotz-kada baizik. «Eldu da garaia —esan zion Samariko emakumea- ri—, eta garai ori etorri da, egizko adoratzaleak Aita espiritu eta egiz adoratu duteneko. Nai ere, ola- xeko adoratzaleak nai ditu Aitak-eta. Espiritu da Aita». (Jn. 4.23).

Eta sentipenarekin, egite onak. Jainkoa ez da aldatzen; arek era- kutsitako egia ta arek emandako laguntzak ere betiko irauko dute. Ereitekoan lurraren giro eta aroa bezala, gizonak dira gustoz aldatuz joaten; eta denborak dituzten bizi molde berriak ekartzen. Elizaren egitekoa da gizonaren neurria jantzi eta berritzea.

(Urdaian'go «AITZIBER» errebista- tik aktua).

SALDIAS

ODOL EMALLEAK

Odol Emallen Lagundia aziaz di- joa Naparran. Berrito lagundiko ortako egin du Mantxeneko bordako Maritxu eta bost mila ta berrogei- garren lumeroa egiten du. Maritxu- aren jokaera asko gustatu zait eta segitzalleak izanen dituela pentsa- tzen dut. Odol emalle egin nai duen guziak, naiko du, Maritxuri edo Apez Yaunari esatea ta adieraztea emanen dute ok zer egin bear du- ten.

Dezakenek ematea oso gauza ona egitea da.

ERRIKO GIZONAK BATZARREAN

Gogorki dabilta gure erriko gizo- nak batzarrean egiten. Oso ederki egiten dute, erriko gorabarak, bear bezala, zuzentzeko; elkarrekin bil- tzea. Lendabizikoa ori baita, gauzak me-me ikustea, gero bidezko dan erabakia artzeko. Baita ere, erriko gauzak, denetak bait-dira, orregatik, denek baitugu zer ikusia gauz auetan.

Gaur bezala darabilzkiten solasak auek dira: Sekretario lanetarako bai elkartu edo ez. Labayenekin, eta Patata lurreko arrubia zer era- tan kandelatu. Gauz auetan oso be- arrezko da elkarrerri begiramentu aundia izatea eta besterena ere en- tzuten yakitea.



BESTA BERRI egunean, eta LESAKA erriko oitura denez, Kristoren Korputzaren omenez «Bande- ra-Arbola» delako Ohorezko Agurra egiten da.

ERRIZ-ERRI



IRUÑA

BERRIAK LLABURREAN

Gertakari itsusi bat. ROBERT KENNEDY il dute.

Robert Kennedy, ipar-ameriketako politika gizon, president-gai gazte eta suhar famatuaren eriotza berriki gertatua, —arabear gazte baten iru tiro botatuz—, munduzabalean bezela bazter guziak, yendeari hunkitu gaitu inharrosten gure biotzak; holako odol-ixurtze torpea arduratzen da oraiko aldirian Ipar-amerikan, ez dira gauzak zuzen eskualde aundi artan, eta irudienez gizon gaixtaginak l'xoegi dabiltz makurkerien asmatzeko gizon zuzenaren arka.

Ez dugu erran bearrik olako itsuskeriak ez dugula nundik nai etor dadin, onesten ahal, ala eskuin nola ezker aldetik badatoz.

Zeren bizia kentzea lagun proji-moiari, ez bakarrik bekatu izugarri bat delakoz Yaungoikoaren begietan; baina biazarazten baititu erra edo gorroto gogo biotzetan, eta ekarrazten ondorio makurrak, famili, herri eta nazioneri, munduan barna.

Gisa huntan, Kennedy dohakabearen itzaltzea samindu gaitu pake eta zuzenaren adixkide guztieri eta segurki ekarko du amerikanoeri buruko miñak eta zalapartak d.torren denboretan.

Jainko baitan bego, Kennedy aita familia gazte eta kiristinoa, gure aldetik eskein dezagun otoiiz bat bere animaren onetan.

Maiatzaren 26 garrenean, Salvatore bezperan, gipuzkoar «EZ DOK AMAIRU» taldekoak etorri zitzaizgun Iruñeko Teatro Gayarre antzokira, eta antolatuta zuten emankizun gustagarri bat iruñareri.

Aritu ziren biziki ongi guztio; Lurdés Iriondo, Letxundi, Laboa, Lete eta gañerako lagunak (barkatu

ez balin badut emen ezartzen bes-teen izenak), kantaldi pollitak eman zuten, bildu zituzten txalo beroak entzulen gandik, bereziki gazterien esku-zartak ziren arroitutsuenak.

Oraiko aldirian moda berriko kantua (canción moderna), hedatu da munduko gazteen lerrotan, zaletasun eta errekesta aundia dauka gazte musikazalen artean, iñondik ez daiteke uka.

Polliki polliki eta ohartu gabe Sanferminetako sasoñera urbiltzen ari gera, baina arrok ez gaitu laguntzen pitzik ere, udaberria bukatzen ari eta oraindik ez dugu yartatu ohino aren ezitasuna eta eguzki disdiranta behar zen bezala.

Negu luze eta espargaria da guretzat betiko teleka, beñipein Iruñerriko eskualdean; beharrik oitua gerala aro murriz onen atsikiari, orrengatik nik beti dio entzun nai duenari, etxeak etsi ta bertakoek joan bear gindezela negukari. eguzki aldeko toki beroetara eta itzuli udarostera gure sorterrira.

¿Etzaizue ala iduri?

BELZUNZE



BERA

Nere erriko bizia yakitea estimatuko duzuela pensatuz or nioja irakurle maiteok itz batzuek erratera.

Ora in dela ez anitz urte errian baserritarrek besterik etzegoan. Bana gaurko denboraren aldera jarraitu bear da ta yakiña lau abere begira ezin dela gelditu eskuak guruztuz. Ola baserritarrek karrikara jo dute lasai. Ezin erran ori gaizki dela, yokabide oberena lur idorrek eta txorak duntentzat. Baserritarrek gutxitu dirala agitz ezin ukatu. Zertara saiatzen dira erriko yende guziok? Ori erantzutera nioja lantxo onetan.

Bera'ko errian azkeneko urte otan yendea geiendu da ta nola ez lantokiak. Fabrika mordoska badira

ez, egia erranta, izugarriak biñon oiken buruz makiña famili ateratzen dira aurrera. Lantegi aundiena arrobi bat da. Lan zakarra ori bai, baña ordaiñez yornal ederra. Arro-bi onetan erriko seme gutxi ibilki dire, geyena kanpoko yendea. Arro-bi au orain dela urte gutxi sortu da, biñon zer martxa eramaten ari da? Izugarria benetan.

An ateratzen dutena —uste dutenez— masa egiteko arria pillaka. Kamionak eta beste lan-gaiak ez dute egoterik argi agerturik illuntze arte. Tiroakin arrotzen dute arria; egunean soñua, kea eta mugitasun besterikan ez dago. Orain arte igetxi du arrobi onek lur edo arri sail ederra, ta emendik aurrera ango soro koskak ederki zelaituko dute. Arria azkar garraitzen dute Gipuzko aldera.

Beste gizon zar ta gazte mordoska gure aldameneko errira jotzen dute; fabrika zabal eta apal orretara. Ara emen bi lan-toki aundienak alderdi otakuak.

Ora in baserritarren bizia kontatu bear dut piskabat. Lenbiziko erranen dut oken bizia ez dela nolanaikoa eta gutxiago erraxa. Karrikako langille bat bere orduk sartu ezker libre dago arron, pasiatzeko ostatur barna txikito batzuek artuz edo beste zernai egiteko. Baserritarra ez, oken aldin lotua dago. Batean izan dira beiak bazkatu bearrak, bestean azia zabaldu bearra ta ola da nekazaria lanera itxekitzen den bezala.

Oraindik ez dute ikusi ezta oroitzen, baserritar batek karrikan barna pasiatzen lasai ta zabal bere emaz teakin edo lagunakin. Igandean mezara yausten denin prisaka ibilli bear edo bestela aita-semeak txandatu. Ikusten dugun bezela trabak sobra, bizi tranquil bat egiteko.

Dirua ikusten da bai, garbi alletzen da naiz beiekin edo bildotsa-kin, biñon goartu orduko eskutik iristuz korritzen du beste alderdi-tara. Gañera kontribuzioak goiti yuaki dira ta gero ta zalago da baserritarren bizia lengo modura beintzat. Bera'ko baserriak kaskarrak dira geientsuenak baten bat kenduz. Lurra ere ezda izugarria, malda besterikan ez, eta zelai gutxi. Auniztan baserritarra ez da yabe berak lantzen dun lurrena, zer egiñen du onek? Beste lanen batera saiatu. Ezda arritzekua ba baserritarrek gutxitzen ari direla.

Baten bat pensatuko du olako martxan emendik urte gutxin burura geldituko direla baserri indartsuak eta aundiak bakarrak. Egia da eta ola gertatuko ere.

Izautzen ditut gizonak beren bizi-modua edo baserritarrena ez dute txandatu beren gogotik. Batzuek erraten dute eurek naigo dutela lan egin iñor agindu gabe eta gutxiago berriz kaskasolla baten azpin. Ez dago gaizki arrazoia, bako-txak bere pensamentuekin segi zala bidea eta kitto.

Itz iokin erran dutela gure baserriak gaizki samar dabiltzala. Yendea al dun lan erraxa arrautzen du, gero etxe txiki bat erosi; eta la-saitasun aundienara pasa. Baserritarrek berriz lengo modura lan egin naiz beti re obekiago baña oraindik kan karrikatarrak biñon makurrago. Gaur badire makina azkarki, baten batzuek erosten al direnak besteak aberatsentzat bakarra.

Pena gogorakin ikusten dutena da nere errian lasaitasunakin aita anitz —yayo geroztik euskera ikasi zutena— beren semeakeri erdaraz asten dirala lengo egumetan.

Itz ok on artu eta beste bat arte.

GAZTE BATEK



ARAITZ

ARTZAIK MENDIRA

Negua bota degu. Ezta otz-otza izan baño naiko euri artuak dira. Gipuzkoa aldi ortan, ballara ontako artzaiek. Emen ikusi ditugu, jun dan egon oitan beren artalde aundi ederrei kontu aundi artuz, Aralar-mendira ta Aundi-mendira, alimoz beterik, udara pasatzera igo dirala.

NEKAZARITZA ETA ABEREAK.



AZIENDA-SARIKETA

Nafarroako Diputazioak antolatuturik, goan den Maiatzaren 25'ean azienda sariketa aundi bat ospatu da Elizondon. Goizean eta bezperean ere eurie ler egin zuen eta eguraldia itxura txar ortan agerturik beldurtzekoa zen azienden ikuskizun guziak ondatuko zirela; baina zorionez eguerdi aintzinean aterturik, arratsaldean eguraldi aski polita izan ginuen. Azienden Sariketak beti izaten dute errekeste eta olakoetan yende aunitz biltzen da, batez ere Baztango azienda ederra erakusten denean. Merkatuko plaza ederra ongi apaindurik agertu zitzaikun eta azienda ere gisa berean lerro bere salletan kokaturik ikusgarri guziz ederra izan zelarik.

Sariketa kuntera 224 buru erakutsi zituzten eta oietatik: 4 gereñu. 34 beor. Bei gorri edo «Pirenaica», Zezen bat eta 20 bei. «Parda Alpina» deitutakoak, 7 zezen, eta 33 bei. Ardiak 112 buru. Aketzak «Large White» klasekoak, 13 buru.

Geien geienak Baztangoak ziren bañan Nafarroako bertze lekuetatik ere baziren. Aurten aintzineko urtean baño bei gutiago ziren, bear bada mainguerien beldurrarekin aunitzek etzituzten beren aziendik ekarri izanen.

Arratsaldeko bortzetan egin zuten Sarien banaketa. Aintzinderien artean, or ziren Diputazioko yaunak eta Baztango alkate yauna bere lagunekin.

Irabaztaleak emen aipatuko ditugu.

Gereñuak. «Burgete» klasekoak, iru urtetik gorakoak Beorak. 1-3 urtekoak Beorak. 3-7 urtekoak Beorak. 7 urtetik gorakoak

Irurite'ko Pedro Obregozo'rena. Lekarotz'ko Pedro Maria Gofii'rena. Amayur'ko Migel Maisterrena'rena. Arizkun'go Pedro Iriarte'na.

Gorir edo «Pirenaica». Zezenak ... Beiak. 1-2 urtekoak Beiak. 2-5 urtekoak Beiak. 5 urtetik gorakoak

Irurite'ko Pedro Obregozo'rena. Elizondo'ko Jose Larratxea'rena. Arizkun'go Fermin Irungarai'ena. Azpilkueta'ko Meliton Mendiburu'rena.

«Parda Alpina». Zezenak. 1-2 urtekoak

Berroeta'ko N. Arretxea'renak eta Irurite'ko P. Obregozo'renak. Arizkun'go Justo Zaldain'ena. Arrayotz'ko Manuel Oharritz'ena. Lekarotz'ko Nikasio Irigoien'ena. Araitz'ko Manuel Oharritz'ena.

Ardiak iru adinetakoak baziren. 1-2 urtekoak. 2-4 urtekoak eta 4 urtetik gorakoak.

Iru malletako lendabiziko Sariak, Lantz'ko Tomas Ariztegi'renak irabazi zituzten.

Azienda Sariketa huntan Nafarroako Diputazioak 200.000 pezta banatu ditu.

Bazan'go Balleko Etxeko katastroan sartutako azindin gora-berak emen ditugu: 5954 bei. 2396 zaldi. 35.166 ardi. 8885 zerri. 23.000 egazti.

M. I.

BASABURUA

EUSKAL FESTA GARZARONGO ERRIAN

Maiatzeko 26 egunean Basaburu Aundiaren Garzarongo errian basaburutarrek prestatutako Euskal Festa izan genun.

Yende izugarri bildu zan; an Ultzamako erri guzietatik etorriak, an Imotzko Ballarako guzitakoak, eta, ezdugu esan beharrik, Basaburuko amabi errietakoak. Beste Naparroko alde batzuetatik ere urbildu ziren Festa ikus-tekoa zalakoz. Gipuztek ere auziz ikusi genun.

Festari Udabe erriko Bertsolari den Aingeru Aldatzek asiera (asmenta) eman zion bere bertso politekin. Gero Aizkor apustua. Latasa oñeko beatz bat mindurik baizeukan eta ezin zun arindu ahal izan, beraren ordez Polipaso eta Arria alde batetik eta Astibia bakarrean bestetik arindu ziren, Astibia aisaki garaille gertaturik. Astibia 43 minutu eta 30 segunduetan egin zuen bere lana, eta bikoteak iru minutu l'erdí geiago bear izan zituen berea bukatzeko.

Iruñeko Ayuntamenduaren soga aundiko Dantzari Taldeak Euskalerriko dantzak dantzatu zituen guzien gogo egiñik.

Azkenean «Soka-Tira» Norgaiagoketa izan genuen. Iruñeko lau sokatiralarri talde aritu ziren: Donibane, Euzko Bazterra, Beti Gazte, eta Irrintzi, Donibane Talde garaiturik.

Dena ondo egon zen eta Basaburutarrek merezi dute gure txaloak. Yende guzia kontent itzuli zan, eta giroa, euritsu izan bazen ere, euriak etzizkigun gure euskal oituren maitasun eta naia itzali ahal izan; gure euskal berotasunak errezi idortzen (legortzen) zuen euria.

Aingeru Aldatz eta Iruñeko Peru Txiki zuzendu zuten festa.

Berriz ere bijozkie basaburutarrei gure txaloak.



Iruñeko «Donibane» deitzen den Mendigoizaleen Elkargoaren «Soka-tira» taldea, Garzarongoko Euskal Festan Txapelidun gertatu zena.

EI Doctor

(Sendagillea)



Sencillo, serio y sentimental. No le hemos concedido ninguna medalla y pasaría mal rato si lo hiciéramos.

Cumplió con su deber, sacrificado y silencioso. Hizo en diez años lo que no se ha hecho en milenios.

Y lo hizo románticamente.

Hace diez años, la Diputación le encargó de la «Sección de Fomento del Vasculence» y el Doctor se puso a trabajar.

Organizó concursos entre los niños por toda la montaña —casi solo— y con la soledad de pocas pesetas. Los niños recibían un insólito Diploma «Naparrako Diputazioaren Izenian...». El vasculence salía de su rincón. Luego llegó esta «Revista» (cosa suya), y las clases en las Escuelas. El vasculence alcanzaba un prestigio oficial en Navarra.

Y sobre todo llegó la claridad. El vasculence es asunto de navarros y no asunto de éstos frente a aquellos. Y siendo cosa navarra, es cosa española. Como navarro fue Malón de Chaide que en español escribió cosas de mística.

El Doctor entra en la Historia, aunque él no lo sepa. En la Historia —sencilla, seria, sentimental— del vasculence. Con Axular, con Manezaundi, con «el Abad de Badostain» y con los bersolaris que dejaron su poesía escrita en el aire, desflecada en niebla sobre las hayas verdosas.

Lo malo es que el Doctor pide relevo. Vamos a ver si lo logra.

Va a ser peor para él, porque tendremos que pensar seriamente en un homenaje.

Provisionalmente, yo siento la cordial obligación de dedicarle esta muestra de gratitud. En nombre de la «Institución Príncipe de Viana» y en nombre del Vasculence.

¡Gracias, Doctor Díez de Ulzurrun!

Langille ixila, gizon oso eta biotz aundikoa.

Ez diogu inoiz esker onaren agiri bat eman eta gaizki ikusiko litzake bera, omenaldi bat egin behar ba genio...

Bere egitekoa neke aundiekin balin bada ere, ots aundirik gabe bete izan du. Eta esku utsean egin ere; inungo irabazien zurrumurruari begira egon gabe.

Duela amar urte Diputazioak euskeraren aldeko saila bere esku utzi eta lanari eman zion.

Aurren arteko sariketarako bakar-tasun gorri eta diru geiegirik gabe erriz erri zuzendu zituen. Diputazioaren izenean agiri bitxi batzuk eta diru-kutxako liburuxkak izaten ziren sariak. Euskera sukalde zokotik kanpora ateratzen asia zen. ARG! SENTIA.

Denborarekin «PRINCIPE DE VIANA» izeneko aldizkaria etorriko zen, —bere aurrera, esan ginezake—; eta erritako eskolak. Pixka pixka, gure izkuntza zaharrak bere lekua artzen du Napparroan. EGUN ARGIA.

Eta batez ere sortu da joko garbia: Euskera napar guzien gauza, ez elgarren arteko ziri zorrotza...

Berak jakin gabe, sendagillea gure erriaren gertakizunetan leporaño sarturik, norbait da; kondairan sartua da bere izena. Euskera maitearen kondairatxo gogor eta barnekorrean beintzat, bai. Axular, Manezaundi, Kanpion eta, bertsu donuekin denbora guzitako gure mendiak jantzi zituzten bertsulariak bezela.

Makurrena da sendagilleak ordaina eskatu duela. GAUA?

Ageriko izanen duen!! Beretako koropiloa, omenaldi bat egin beharko genioke ta...

Arte ontan, gure egiteko pozgarria eskerrak ematea da. «PRINCIPE DE VIANA» eta euskeraren izenean diogu:

Eskerrik asko, Díez de Ulzurrun jaun sendagillea!!

PILOTARIAK

ATANO TXAPELDUN

Bazuetan inork uste ez duenean sortzen dira eztabaidak eta aurtengo pilota Txapelketako Azken-partida orrek ere izan du ba naiko naskunde. Sakearen falta iruterdia edo laua bear zuela izan eta marra hori dela medio bazterrak aski nahasiak ibiliak dira; bainan azkenean auzi hori antolatuturik eta bi eskualdeak baietza eman ondorean. Azkarate eta Atano'ren arteko Azken-partida edo Finala yokatu zuten. Orrelako eztabaida ergelak geiago gertatu ez ditezen, orai diote «erreglamento» edo pilotaren lege berriak egin bearrak dituztela eta gisa ortan urrengo aldirian, Txapelketak beti bide onetik yoanen direla berriz guterma oiek agertu gabe. Denen gañetik pilotazaleok bear dugu elkarrri errespetu aundia eta gure pilota yokoa izan dedilla ohorezko yosteta bat euskaldun yendeari dagokion bezala, ala uste dugu beintzat.

Maiatzaren 19'an Donosti'ko «Anoeta» izandu da Azken-partida orren lekuko. Plaza bete bete yendez, an baziren uyu eta arrabots franko zenbaitzuk ederki nabarmendu zirelarik.

Partida asi aintzin trabesak Atano'ren alde 100-80 ri zauden, eta lendabiziko saka azkoitiarrari suertatu zitziolarik, orduan 100-70 ri uyu egiten zuten. Atano'k lendabiziko tantoa galdurik, Azkarate elorriotarrak zortzi puntu lerro-lerro egin zituen, (8-0) eta ea irugarren tantorako trabesak berdinean zauden, zortzigarreneko 200-80 ri Azkarate'n alde uyu egiten zutela. Gero azkoitiarrak bere lenengo tantoa egin zuten, (1-8) eta ondolik Azkarate'k bertzea, (9-1). Badirudi partidak ezuela kolorerik banan Atano'k bertz puntu irabazten ditu, (6-9) eta gudukaldiak bertze itxura bat artzen du. Gero Azkarate'k eginen zituen bertze bi tanto, (11-6) eta trabesak 100-80 ri elorriotarraren alde. Atano azkoitiarra ernatu da, bizkor dabilla eta bertz puntu lerro-lerro eginik, berdintzen du partida (11-11). Ados yaunak eta trabesak azkoitiarraren alde 200-100 ri. Gero berriz adosteak 13, 14 eta 16 garren tantoetan eta trabesak 200-150 ri Atano'ren alde. Partida atakua, bi pilotariak gogor ari dira beren ahalmen guziak era kusten dituztela. Atano oraingoan



aintzinaldia arturik lau puntu egiten ditu (20-16). Trabesak 200-100 ri bere alde. Gero Azkarate'k bere amazapigarrena, eta azkenik Atano'k bertze bi tantoak eginik garai-pena erdietsi du (22-17). Atano Txapel-dun.

Partidak ordu bat eta 22 minutu iraun zuten, bainan orrek ezto erran nai denbora hori guzia yokoa aritu zirela, pausa aundiak ere egin baituztzen. Bi pilotarien artean, pilotari 277 aldiz yo zuten.


Irabaztaleak eta galtzaleak ere Trofeo delako edergailu bana artu zuten eta ikuslar guziak pilotarien ohoretan esku-zarta aundiak yo zituzten. Zorionak bi pilotariari, bi plaza-gizon eta bi euskaldun on.

ANZANARRI

EUSKAL LIBURU BERRI BAT

"Egunetik egunean orduen gurpillean"

Poema Liburua - Xabier Lete'rena



Xabier Lete'ren Poema Liburu au atera berri da gure Liburu-saltokitara (liburu dendatarara). Baño liburu berri oni buruz zeozer esan baño lehen nai dugu yakinerazi irakurle nor dan Xabier Lete euskal poeta ta kantari gaztea.

Xabier Lete Oiartzungo errian sortu zen 1944'gn. urteko Aprillaren bosgarrenean, eta an bizi da oraindik.

Euskal errebistetan izkribitzen asi zen itz neurtuz eta itz arruntean (bersoz eta prosaz) Oiartzungo euskeraz, urte gutxiren buruan gauz guziren gañetik euskal poeta trebe eta errikoia bihurturik.

Euskalerrian oso ezaguna dugu ez bakarrik bere idazlan eta poesiala-nengatik baita bere euskal kantue-gatik ere. Xabier Lete «Ez dok Amairu» kantari taldearena da, eta Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi, Julian Lekuona eta Mikel Laboaren euskal kantari talde au osotu-

tzen dute. (Ain zuzen ere ill onen barruan ateratzekotan da Xabier Lete'ren euskal disko bat lau kantu dituen: «Euskalerrin nerea», «Lore gorrien balada», Poeta Hoiek» eta «Biotza»).

Bere Poema Liburuari buruz xetasun batzuk esango dugu orain: Orain bi urte Donostiko «Agora» Eikargoak antolatutako euskerazko Poesiaren Sariketan Lenengo Saria irabazi zuen «Bekatu zaharrak eta sinismen berria» izenezko Poemaren. Urtebete ondorean berriz ere «Agora»-ren Euskal Poesiaren Sari Nagusia bereganatu zuen «Egunetik egunean orduen gurpillean» izena zuenarekin. Orain Xabier Lete liburu bat argitaratu du bi auetako poemarik onenekin osotua eta «Egunetik Egunean orduen gurpillean» deitzen dena.

Liburuko Itzaurrean, aintzin solasan. Eibarreko Yon San Martin yaunak ala idatzi du: «Bere estiluz, bere eraz, zer esan? Berakin du


Letek indar adierazgarria, espresiozko indarra, bihotz hunkigarriko indar berezia. Adimen eta bihotzetikako adore gartsua etzaio falta. Herriari mintzo denez, ulertezreza da bere gaia, irakurriala errez konprenituko deguna...», Yon San Martinek bere prologoan alaxe bukatzen du: «Lurraren seme zintzoa aberri-miñez nabaitzen da XVII.—Ni bizi naizen lurrean— poema hunkigarrian, ideak ongi biribilkatuaz. Eta lirika berriz ari zaigu: —XVIII.—Batzango lurrea— poeman. Hiru poema hoiek, beste gabe, aski dira poetaren neurri sakona emateko, gaiez eta estiluz».

Amairan dion bezela, «bere iturria noizbait bukatuko da, baiñan bere iturri hori agortu orduko muin-zumoz esperantza ongarriaren fruitu emakorak ongi bustiko dituen uste osoan gera».

Irakurleak: Badakizue bada liburu onen berri; erosi zazue, merezi bait du.

EUSKAL DISKOAK

Lourdes Iriondo'ren disko berriak



Euskaldun guziek neska lirain bezin kantari ona den Lourdes Irion-

do'ren berri badugu aspaldin, eta «Ez dok amairu» kantari taldearena dela ere badakigu. Bere bi lenengo diskoak ezagutzen ditugu. Orain disko berri bat atera berria du Lourdesek. Disko onek lau kantu ditu: «Nere Herria», «Lin-Pan mendian», «Gazte gera, gazte», eta «Askatasuna zertarako». Egun gutxi barru «Euskal Kanta zaharren» disko berri bat agertzekotan dago, amabi euskal kanta zahar izanen dituena. Bigarren disko au gure Errevista agertu orduko salgai egonen dela disko-dendetan, aipatu dugun lenengo bi illabete baditu saltokietan dago.



MOZKOR KONDU

Uda zen. Egun artan izigarriko be-
roa egin zuten. Bi gizon, Ellande eta
Piarre, errian egonik arratsaldean
azkarki egarrituak, edan zuten bat
bestearen ondolik, arno baso anda-
na bat. Azkenean, begiak ñir-ñir,
mozkorkor solas bezik etzuten; eta

ez bakarrik solasak, bainan ere egi-
nak.

Partitzeko tenorea heldu zenean
gure Piarre etzen xutik eguiten
ahal. Atarratzen ziren. Behar zuten
mendiarri buruz berriz abiatu, bai-
nan nola?

Ellande, azkarrago dudarik gabe,
ibiltzen ahal zen. Ostatutik atera ta
lotu zituen orgak mandoari; gero
beste gizon baten laguntzarekin
aren gainean eman zituen biz-pairu
kisu zaku, eta Ellande gizajoa zutik
ezin egona...

Abiatzen dira mendirat buru, gi-
zon, mando, orgak... Aintzinean
Ellande kantuz ba zoon, mandoak
bere ezkiila ttipiak inarosten zituela.
Emeki emeki heltzen dira gaineko
etxaldetarat eta ona nun bide baz-
terrean ba den ostatu bat oraino ar-
giak pizturik.

Ellandek gibelerat so egin gabe
erraten du:

—Errak Piarre! ez duk egarri sen-
di?

Piarrek ez du ardiesten. Ellandek,
berriz:

—Errak, to! Ni egarritua nuk...

Bestea ixilik. Orduan itzultzen da
Ellande:

—Bainan, ala Jinkua! Or ez da

ageri orgarik ez gizonik! Bakarrik
mandoa...

Iztuia Ellande berriz gibelerat
abiatzen da, orai Atarratzera bi-
dean; ez da ageri frixik. Ellandek ez
du asmatzen zer gertatu den.

Errirat heldu ta jaun Erretoraen-
gana abiatzen da; jeikiarazten du.
Gero berriz alkatearengana ere.
Zonbait mutiko gazte biltzen dira,
denen artean gizon eta orga gal-
duak bilatzeko. Ona nun dabilzan
mendiko bidean: Zer misterio da
gaur gertatu?

Batek ikusten du kisu erreata bat.
Denek segitzen dute, bainan bethe-
tan erreata ura gelditzen da. Bidean
ez da gehiago ageri. Orduan biur-
gunean so egiten dute bide bazter-
rerra, eta zer ikusten dute? Bide
peko aldean arbolano usu batzuen
erdian orga bere kargarekin; eta
zakuen gainean, Jainkoaren lorian,
gure Piarre lo, oatze oberenean be-
zela.

Dudarik gabe, Ellandek etzuen
behar bezala lotu mandoa eta biur-
gunean orgak joan ziren bidetik. Zo-
rionez an ziren arbolano aiek eta bai
ta ere mozkorren aingeru begira-
leak.

FELI SETOAIN (Luzaide)